

IDEIAREN AZALPENA

Errendimendu altuko zentroa sortuko dugu Gasteizen, euskal kirolarien errendimendua sustatzeko. Euskal Herri osoan ez dago horrelako zerbitzurik eta egoera hau baliatu nahi dugu. Hasiera batean **lau kirol ezberdinetan zentratuko** dugu kirolarien ikasketa: Futbola, saskibaloia, gimnasia erritmikoa eta padela. **Esperientzia duen pertsonal famatua** eta prestatua kontratatuko ditugu. Horrez gain, **Euskal Autonomia Erkidego osoan ez dago lehiarik**, gainerakoetatik bereziko ginateke. Hasiera batean, **Euskal Herriko jendeari zuzendutako** proiektu bat izango da. Baina behin **etekin nahikoak izanda, hedatze-plana jarriko** genuke martxan, horretaz aparte pertsonen beharrak asetzeko hainbat kuota sortuko ditugu. Era berean, hasiera Gasteizen ditugun instalazio propioak erabiliko ditugu eta, azkenik, hedatze planarekin batera, Espainia osora zabaltzeko aukera izango dugu, lurralde bakoitzeko instalazioak baliatuz.

